



## Egoera ekonomikoa eta Merkatuak **ASTEKO LABURPENA**

2018ko ekainaren 11tik 15erako astea

---

### ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

### ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

### ➤ **GURE IKUSPEGIA**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: EBZren BILERA

#### HAZKUNDEAREN BALIOESPENA

	2018		2019		2020
Crecimiento	2,4%	2,1%	1,9%		1,7%
Inflación	1,4%	1,7%	1,4%	1,7%	1,7%

#### Datuaren analisisia


Europako Banku Zentralak ez zuen aldaketarik egin interes-tasetan, eta aktiboen erosketa garbiena bolumena hilean 30.000 milioi eurokoa izan zen. Gainera, urteko azken zatian diru-politikan bertatuko diren aldaketen berri eman zuen. Hasteko, QE programaren murrizketa berri bat iragarri zen, 15.000 milioi eurorainokoa urria eta abendua bitartean, azkenik, programa amaitutzat hartuko da. Interes-tasei begira, EBZk adierazi zuen gaur egun dituzten mailetan mantenduko direla. 2019ko udara arte gutxienez, eta, edozein kasutan, inflazioa iraunkortasun bidean dagoela ikusiko da. Erakundeak, gainera, 2018rako Euroguneko hazkunde aurreikuspenak apaldu zituen, % 2,4tik % 2,1era, eta inflazioaren inguruan egindako aurreikuspenak, berriz, gorantz berrikusi zituen, % 1,4tik % 1,7ra.

#### Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentralean Euroguneko 19 herrialdeetako diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakunde da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka goitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor eta z-inflazionista bati eustea.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: KPI



### Datuaren analisisia

**uroguneko urte arteko inflazio-tasa** % 1,9koa izan maitzean, aurreko hileko % 1,3aren aldean, ezioen hazkunderik handiena 2017ko apiriletik, energiaren eta zerbitzuen gorakada handiaren ondorioz. Energiaren, elikagaien, alkoholaren eta tabakoaren prezioen bilakaeraren eragina alde batera utzita, Euroguneko azpiko inflazio-tasa % 1,1era igo zen maitzean, aurreko hileko % 0,8tik.

### Adierazlearen azalpena

Pla hilero prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta atez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak errialdearen inflazioa zehaztuko du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: FEDen BILERA

### AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	2018		2019		2020		L/P	
	Marzo	Junio	Marzo	Junio	Marzo	Junio	Marzo	Junio
PIB	2,7%	2,8%	2,4%		2,2%		1,8%	
Tasa Paro	3,8%	3,6%	3,6%	3,5%	3,6%	3,5%	4,5%	
PCE	1,9%	2,1%	2,0%	2,1%	2,1%		2,0%	
PCE Core	1,9%	2,0%	2,1%		2,1%			

### MEDIANA DOTS

2018		2019		2020		L/P	
Marzo	Junio	Marzo	Junio	Marzo	Junio	Marzo	Junio
2,125%	2,375%	2,875%	3,125%	3,375%		2,875%	

### Datuaren analisisa

**Erreserba Federalak**, espero zen moduan, puntu laurden igo zuen tasa ofiziala, % 1,75-% 2 mailaraino. Bileraren ondorengo prentsaurrekoan, Powell baikor agertu zen Ameriketako ekonomia hazkundearen inguruan (hazkunde aurreikuspenen gorakada 2018rako, % 2,7tik % 3,8ra). Gainera, *dot*-ek medianaren gorakada bat erakutsi zuten; izan ere, Erreserba Federaleko bertze kidek tasa ofizialaren lau igoera edo gehiago aurreikusi baitzuten 2018rako.

### Adierazlearen azalpena

Federal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-politikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren gonkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko erakunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, erabateko erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa barne) eta luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



### Datuaren analisisa

**industria-ekoizpenak** urte arteko % 6,8 egin zuen gora maiatzean, apirilko igoeran baino bi hamarren gutxiago, baina oraindik martxoko % 6ko gorakadaren gainetik. Urteko lehen bost labeteetako metatuan, industria-ekoizpenak % 6,9 egin zuen gora. Sektoreka, aurreko hilean ehien hazi zirenak elektrizitatearen, energia termikoaren, gasaren eta uraren ekoizpena eta arnidura izan ziren, % 12,2ko baterako igoerarekin, aurreko urteko hil beraren ondoan.

### Adierazlearen azalpena

industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-ektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

**KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...**

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
06/18	Japonia	Balantza komertziala	-¥205.2b
06/18	Japonia	Urte arteko esportazioak	% 7.5
06/18	Japonia	Urte arteko inportazioak	% 8.0
06/20	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.55m
06/20	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	% 1.7
06/21	Frantzia	Enpresen konfiantza	107
06/21	Espainia	Balantza komertziala	--
06/21	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0.500
06/21	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
06/21	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	0.0
06/22	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.6
06/22	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
06/22	Frantzia	Urte arteko BPGd	% 2.2
06/22	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	54.1
06/22	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	53.3
06/22	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	53.8
06/22	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--

## JRTSA:

urtsako indizeen balantzea mistoa izan zen astearen bukaeran Europan eta AEBetan, eta negatiboa adakorretan. Banku Zentralen bilerek eta gerra mertzialak ekarri zuten merkatuen arreta. EBZk ez duen interes-tasak aldatu, espero zen moduan. Gainera, QE programaren murrizketa berri bat iragarri zen, 15.000 milioi eurorainokoa urria eta abendua artean, azkenik, programa amaitutzat emateko. Interes-tasei begira, erakundeak adierazi zuen gaur egun dituen mailetan mantenduko direla, gutxienez 2019ko udara arte. Mezu horiekin batera, EBZk iragarri zuen 2018rako hazkunde aurreikuspenak beharantz berrikusi zituela, eta inflazio aurreikuspenak, berriz, berantz. Japoniako Bankuak, halaber, egun indarrean duen diru-politikei eutsi zien, eta inflazio-aurreikuspenak beharantz berrikusi zituen. Erreserba federalak, aitzitik, interes-tasak puntu laurden igo zituen, diruaren prezioaren hurrengo igoerek erritmo txorrago bat izango dutela aditzera emanez. Gainera, 2018rako hazkunde aurreikuspenak igo zituen. Bestalde, gerra komertzial bat piztearen inguruko aldurra biziagotu egin zen, Trumpek produktu natarrei 50.000 milioi dolarretan zenbatetsitako muga argak ezartzeari bere oniritzia eman ondoren. Horren ondorean, Txinak Ameriketako produktuei tasak ezarriko zekiela iragarri zuen.

## ERRENTA FINKOAK:

EBZren mezu arinagoak eta Savonak Italiarentzat euroa inbestekoa dela adieraziz egin zituen adierazpenek heranzko mugimenduak eragin zituzten Europako merketan. 10 urterako bonu alemanaren errentagarritasuna 5 op jaitsi zen, % 0,40raino. Epe luereko bonu espainiarrak 17 op egin zuen behera, % 30eraino, eta arrisku-prima 89 puntutaraino jaitsi zen. AEBetan, aurten, tasa ofizialaren lau igoera edo gehiago iriteko dauden aukerak eragina izan zuen hamar urterako Ameriketako errentagarritasunean, % 3an jaitsi katu baitzen berrito, astea % 2,92an amaitzeko. Errentuaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

## BISAK/LEHENGAIK:

Dirua ahuldu egin zen gainerako dibisen aurrean, interes-tasak igotzen hasteko orduan EBZk agertu zuen errezeloak direla kausa. Lehengaietan, petrolioaren prezioak % 4,28 egin zuen behera. Izan ere, petroliu Arabiak eta Errusiak euren ekoizpenak murrizteko aukerak eragina izan baitzuen kotizazioan. Errentuaren balioak, bestetik, % 1,52 egin zuen atzera, 279,55 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa % Astean	Ald. 2018
MSCI WORLD (Local)	1.622,57	0,29	2,29
IBEX 35	9.851,00	1,07	-1,92
DJ EURO STOXX 50	3.505,02	1,67	0,03
DJ STOXX 50	3.088,80	1,01	-2,80
FTSE	7.633,91	-0,61	-0,70
S&P 500	2.779,66	0,02	3,97
Dow Jones	25.090,48	-0,89	1,50
NASDAQ	7.746,38	1,32	12,21
NIKKEI 225	22.851,75	0,69	0,38
MSCI GORAKORRAK (Lo)	60.541,13	-1,14	-0,55
MEXBOL	46.938,82	2,18	-4,89
BOVESPA	70.757,73	-2,99	-7,39
SHANGHAI	3.165,01	-1,47	-8,62
Errusia Rts Mosku	1.117,04	-2,26	-3,24

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,62	0,03	0,01
ESPAINIA 2 URTE	-0,23	-0,01	0,11
AEB 2 URTE	2,55	0,05	0,66
ALEMANIA 10 URTE	0,40	-0,05	-0,02
ESPAINIA 10 URTE	1,30	-0,17	-0,27
AEB 10 URTE	2,92	-0,03	0,52
ALEMANIA 30 URTE	1,17	0,03	-0,10
ESPAINIA 30 URTE	2,49	-0,10	-0,36
AEB 30 URTE	3,05	-0,04	0,31
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 06/23	65,76	-8,37	20,84
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/23	294,44	-13,55	62,00

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Dolarra / Euroa	1,16	-1,43	-3,47
Yena / Euroa	128,35	-0,43	-5,18
Libera / Euroa	0,87	-0,49	-1,73

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Petrolio (Brendt)	72,53	-4,28	8,55
Urrea	1.279,55	-1,52	-1,80



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.